

Aurkezpena



Sekuentzia honetan ariketa hauek egingo dituzu:

- Testua irakurri eta horri buruzko galdera batzuei erantzun.
- Bi audio entzun eta esaldiak nori esan dituen identifikatu.
- Zure iritzia beste lagun batzuekin partekatu.

Sare sozialak, tresna bizkor eta indartsuak

Testua irakurri eta bideoa ikusi ondoren, erantzun beheko galderari.

Facebook, Youtube, QQ, Qzone, WeChat, Twitter, WhatsApp... gure lagunak dira. Egunero komunikatzen gara horien bitartez. Sarean harremani eusteko bideak dira, orain arte batez ere lagun-harremanak. Bertan, interesgarriak iruditzen zaizkigun edukiak, artikuluak, argazkiak edo bideoak lagunekin partekatzen ditugu, eta lagunak iritzia emateko aukera izaten dute. Lehen herriko kaleetan edo tabernetan izaten zena gaur egun edonondik eta edozein momentutan egin daiteke.

Facebook izan zen lehenengoa. 2003an Mark Zuckerbergek sortu zuen, Harvard unibertsitateko ikasle zenean. Ikaskideen harremanak sortu eta sendotzeko baliabidea eratzea zuen helburu, ikasgelan eta campusean sortzen ziren kontaktuak Internet bidez ere mantentzeko bidea egitea. Orduz geroztik, kaleko harremanak ordenagailura igaro ziren, eta gaur egungo harremanbide garrantzitsu bihurtu dira. Azken datuen arabera, 2014. urtearen amaieran, Facebookek 1.350 milioi erabiltzaile zituen.



Harreman pertsonalerako erabili izan dira gehienbat, baina enpresaren esparrura ere zabalduta azken urteetan. Ikasgeletan, berriz, oso gutxi erabiltzen dira. Ikasleek sortutako teknologiari eta gazte gehienek eguneroko komunikazio-bideari heziketan sartzen kostatzen ari zaio.

Inazio Retegi irakasle eta maisuak, ordea, Oiarzo Ikastolan Batxilergoko Geografiako eta Filosofiako klaseetan erabiltzen ditu. Ikaslearen mundu pertsonala eta ikasketamundua elkar ditzaketela uste du. Irakasle lanetan 35 urte darama eta teknologia zein sare sozialak gaur egungo ezinbesteko baliabideak direla azpimarratu digu: “Gazteek inork baino hobeto menderatzen dute hizkuntza berri hau, eta haiengana hurbiltzeko bidea da”, esan digu.

Jolasgarrietan ikasleak makina txiki batekin oso kontzentratuak eta aktibo ikusten zituen Inaziok. Zertan ari ziren galdezka hasi zitzairen duela lau pabost urte. Jolaserako eta egiten ari ziren aktibitate horietarako hain erakargarriak baldin baziren, lanerako ere interesgarriak izan zitezkeela pentsatu zuen: “Sarean beste lekuetan zer egiten ari ziren begiratzen hasi nintzen, eta ikasteko era berri bat ekarriko zutela zioten askok eta askok”, azaldu digu.

“Sare sozialek ikasleak bizi duen mundu bat gehiago osatzen dute. Mundu horretara eskolako ezagutzak hurbiltzea garrantzitsua da. Beharrezko ditugun jakintzak, egiten jakiteak eta izaten jakiteak presente egon behar dute mundu horretan ere, ezin baitira guztiak eskolan soilik landu”, azpimarratu du. Beraz, sare sozialen erabilera, besteak beste, ikasleei kontzientzia, garapena, ezagutzak eta jakintza eskura jarri behar zaizkiela agertu digu Inaziok.

Bi modutan erabili daitezke: Inaziok OMZ deitzen diona lehena, eta erabilera profesionala edo ikasgeletan erabil daitekeena bigarrena: “Erabilera bati OMZ deitzen diot: Oso Maite Zaitut. Jolasgarrietan etengabe erabiltzen dute. Erabilera emozionala da. Eta bestea erabilera profesionala da, ikaskomunitateen artean eraikitzen dena”.

Baina nola egin ikasgeletan erabiltzeko? “Nik, ezagutza aldetik, zerbait interesgarria aurkitzen badut, besteen eskura ere jar dezaket aurkitu orduko. Eta gainera, nahi dudanean, besteek aurkitu dutena ere ikus, irakur eta azter dezaket”, azaldu digu. Horrela, sare sozialak tresna “bizkor eta indartsu” bilakatzen direla esan digu Inaziok.

Sare sozialek beldurra ere eragin dute, batez ere gurasoengan. “Beldurra ezagutzen ez denari izaten zaio. Sare sozialei errespetu handia eduki behar zaie. Gozorako diren bezala, mingotserako ere gerta daitezke. Sare sozialek izan dezaketen arriskuaren aurrean arduraz jokatzeko eta elkar zaintzen irakatsi behar diegu ikasleei”, gogoratu digu. Azken batean, sare sozialak bizitza pribatuko esparrurako bakarrik erabiltzen badituzte, norberak ahal duena bakarrik egingo duela esan digu. Gelako lanean ere integratzen badira, denon artean zuzen jokatzeko ikasiko dugula adierazi du: “Ikasgeletan ere sare sozialak integratuz, arduraz jokatzeko, elkar zaintzen eta elkar errespetatzen ikasteko aukera ederra izango dute”.

zaizkiela agertu digu Inaziok.



Bi modutan erabili daitezke: Inaziok OMZ deitzen diona lehena, eta erabilera profesionala edo ikasgeletan erabil daitekeena bigarrena: “Erabilera bati OMZ deitzen diot: Oso Maite Zaitut. Jolasgaraietan etengabe erabiltzen dute. Erabilera emozionala da. Eta bestea erabilera profesionala da, ikaskomunitateen artean eraikitzen dena”.

Baina nola egin ikasgeletan erabiltzeko? “Nik, ezagutza aldetik, zerbait interesgarria aurkitzen badut, besteen eskura ere jar dezaket aurkitu orduko. Eta gainera, nahi dudanean, besteek aurkitu dutena ere ikus, irakur eta azter dezaket”, azaldu digu. Horrela, sare sozialak tresna “bizkor eta indartsu” bilakatzen direla esan digu Inaziok.

Sare sozialek beldurra ere eragin dute, batez ere gurasoengan. “Beldurra ezagutzen ez denari izaten zaio. Sare sozialei errespetu handia eduki behar zaie. Gozorako diren bezala, mingotserako ere gerta daitezke. Sare sozialek izan dezaketen arriskuaren aurrean arduraz jokatzeko eta elkar zaintzen irakatsi behar diegu ikasleei”, gogoratu digu. Azken batean, sare sozialek bizitza pribatuko esparrurako bakarrik erabiltzen badituzte, norberak ahal duena bakarrik egingo duela esan digu. Gelako lanean ere integratzen badira, denon artean zuzen jokatzeko ikasiko dugula adierazi du: “Ikasgeletan ere sare sozialek integratuz, arduraz jokatzeko, elkar zaintzeko eta elkar errespetatzeko ikasteko aukera ederra izango dute”.

[Ikusi Inazio retegiri egindako elkarrizketa.](#)



(bideoasare_sozialak.flv)

Sare sozialek zertarako balio dute?

- Interesgarriak diren eduki, argazki edo bideoak ezezagunekin partekatzeko.
- Interesgarriak diren eduki, argazki edo bideoak lagunekin partekatzeko.
- Interesgarriak ez diren irudiak lagunekin komentatzeko.

Noiz sortu zen Facebook?

- 2003an, unibertsitateko irakasle batek sortu zuen.
- 2003an, unibertsitateko ikasle-talde batek sortu zuen.
- 2003an, unibertsitateko ikasle batek sortu zuen.

Zertarako sortu zen?

- Unibertsitateko ikasleen artean lanak partekatzeko.
- Unibertsitateko ikaskideen artean harremanak sortu eta sendotzeko.
- Unibertsitateko irakasleek ikasleei lanak bidaltzeko.

Zertarako erabiltzen dira sare sozialak batez ere?

- Harreman pertsonalerako erabili izan dira batez ere, baina enpresa-munduan ere geroz eta gehiago erabiltzen ari dira.
- Lan-harremanerako erabiltzen dira batez ere.
- Ikasgeletan asko erabiltzen dira, beraiek sortu baitzituzten.

Zer defendatzen du Inazio Retegik?

- Ikaslearen ikaste-mundua eta mundu pertsonala elkar ditzakeela.
- Ikaslearen ikaste-mundua eta gainerako munduak elkar ditzakeela.
- Ikaslearen ikaste-mundua eta mundu pertsonala bana ditzakeela.

Nola deskubritu zituen sare sozialak Inaziok?

- Jolasgarrietan ikasleak oso kontzentratuak ikusten zituelako beren artean sare sozialez hitz egiten.
- Jolasgarrietan gainerako irakasleak oso kontzentratuak ikusten zituelako makina txiki batekin.
- Jolasgarrietan ikasleak oso kontzentratuak eta aktibo ikusten zituelako makina txiki batekin.

Zer dio sare sozialen inguruan Inaziok?

- Aurreko bi baieztapenak zuzenak dira.
- Sare sozialen erabileran, besteak beste, ikasleei kontzientzia, garapena, ezagutzak eta jakintza eskura jarri behar zaizkiela.

- Sare sozialen bidez ikasleen mundura eskolako ezagutzak hurbiltzea garrantzitsua dela dio; horrela, ikasleek beharrezko dituzten jakintzak, egiten jakiteak eta izaten jakiteak presente egongo dira haien erabileretan.

Zenbat modutan erabili daitezke sare sozialak, Inazioren ustez?

- Erabilpen ez emozionala batetik eta erabilpen pertsonala bestetik.
- ONZ deitzen diona batetik eta OMZ deitzen diona bestetik.
- OMZ deitzen diona batetik eta erabilpen profesionala bestetik.

Nola erabili daitezke ikasgeletan sare sozialak, Inazioren esanetan?

- Ikasleak sarean aurkitutako edukia bereganatu dezake eta sare sozialetan gorde.
- Ikasleak sarean aurkitutako eduki interesgarria beste ikaskideen eskura jar dezake aurkitu orduko, eta besteek aurkitu duena ere ikus, irakur eta azter dezake nahi duenean.
- Irakasleak aurkitutako edukia soilik konpartitu dezake ikasleekin sarean.

Beldurrik izan behar al zaie sare sozialei, Inazioren esanetan?

- Beldurra ezagutzen ez denari izaten zaionez, errespetu handiarekin ibili behar da sare sozialetan eta beldurra ere eduki behar zaie.
- Beldurra ezagutzen ez denari izaten zaionez, errespetu handiarekin sare sozialek izan lezaketen arriskuaren aurrean arduraz jokatzeko eta elkar zaintzen irakatsi behar diegu ikasleei.
- Beldurra ezagutzen ez denari izaten zaio; beraz, sare sozialak ezagutzeko, beldurra uxatu eta edozein modutan erabili daitezke.

Nork esan du?

Gai honi buruz galdetu zaie bi laguni. Galderak hauek izan dira:

- 1- Erabiltzen al dituzu sare sozialak?
- 2- Baliagarriak iruditzen al zaizkizu?
- 3- Zein alde on dituzte sare sozialek?
- 4- Eta zein alde txar?

[Entzun audioak eta markatu taulan esaldi bakoitza nork esan duen \(posible da biek esatea\).](#)

Raul Perez



(raul.flv)

Imanol Fernandez



(imanol.flv)

	Raul	Imanol
Ia sortu zirenetik erabiltzen ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Oso onak dira informazioa azkar jasotzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ez zaizkio interesatzen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Harremanetarako onak dira, baina ez dira modu bakarra.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Baliagarriak dira ikusten ez dituzun lagunekin harremana berreskuratzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Intimitatea galtzen da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lanerako onak dira.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Nahi baino denbora gehiago galtzeko arriskuka dago.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ez zaio gustatzen idazten duena betiko hor gelditzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Batez ere informatzeko eta lagunei jarraitzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Eta zuk?

Orain eman zuk iritzia. Jarri lagun batekin eta eman zuen iritzia aurreko ariketan atera diren galderari buruz.

- 1- Erabiltzen al dituzue sare sozialak?
- 2- Baliagarriak iruditzen al zaizkizue?
- 3- Zein alde on dituzte sare sozialek?
- 4- Eta zein alde txar?

Zuzenketa-orria

Sare sozialak, tresna bizkor eta indartsuak

Sare sozialek zertarako balio dute?

- Interesgarriak diren eduki, argazki edo bideoak ezezagunekin partekatzeko.
- Interesgarriak diren eduki, argazki edo bideoak lagunekin partekatzeko.
- Interesgarriak ez diren irudiak lagunekin komentatzeko.

Noiz sortu zen Facebook?

- 2003an, unibertsitateko irakasle batek sortu zuen.
- 2003an, unibertsitateko ikasle-talde batek sortu zuen.
- 2003an, unibertsitateko ikasle batek sortu zuen.

Zertarako sortu zen?

- Unibertsitateko ikasleen artean lanak partekatzeko.
- Unibertsitateko ikaskideen artean harremanak sortu eta sendotzeko.
- Unibertsitateko irakasleek ikasleei lanak bidaltzeko.

Zertarako erabiltzen dira sare sozialak batez ere?

- Harreman pertsonalerako erabili izan dira batez ere, baina enpresa-munduan ere geroz eta gehiago erabiltzen ari dira.
- Lan-harremanerako erabiltzen dira batez ere.
- Ikasgeletan asko erabiltzen dira, beraiek sortu baitzituzten.

Zer defendatzen du Inazio Retegik?

- Ikaslearen ikaste-mundua eta mundu pertsonala elkar ditzakeela.
- Ikaslearen ikaste-mundua eta gainerako munduak elkar ditzakeela.
- Ikaslearen ikaste-mundua eta mundu pertsonala bana ditzakeela.

Nola deskubritu zituen sare sozialak Inaziok?

- Jolasgarrietan ikasleak oso kontzentratuak ikusten zituelako beren artean sare sozialez hitz egiten.

- Jolasgaraietan gainerako irakasleak oso kontzentratuak ikusten zituelako makina txiki batekin.
- Jolasgaraietan ikasleak oso kontzentratuak eta aktibo ikusten zituelako makina txiki batekin.

Zer dio sare sozialen inguruan Inaziok?

- Aurreko bi baieztapenak zuzenak dira.
- Sare sozialen erabileran, besteak beste, ikasleei kontzientzia, garapena, ezagutzak eta jakintza eskura jarri behar zaizkiela.
- Sare sozialen bidez ikasleen mundura eskolako ezagutzak hurbiltzea garrantzitsua dela dio; horrela, ikasleek beharrezko dituzten jakintzak, egiten jakiteak eta izaten jakiteak presente egongo dira haien erabileretan.

Zenbat modutan erabili daitezke sare sozialak, Inazioren ustez?

- Erabilpen ez emozionala batetik eta erabilpen pertsonala bestetik.
- ONZ deitzen diona batetik eta OMZ deitzen diona bestetik.
- OMZ deitzen diona batetik eta erabilpen profesionala bestetik.

Nola erabili daitezke ikasgeletan sare sozialak, Inazioren esanetan?

- Ikasleak sarean aurkitutako edukia bereganatu dezake eta sare sozialetan gorde.
- Ikasleak sarean aurkitutako eduki interesgarria beste ikaskideen eskura jar dezake aurkitu orduko, eta besteek aurkitu duena ere ikus, irakur eta azter dezake nahi duenean.
- Irakasleak aurkitutako edukia soilik konpartitu dezake ikasleekin sarean.

Beldurrik izan behar al zaie sare sozialei, Inazioren esanetan?

- Beldurra ezagutzen ez denari izaten zaionez, errespetu handiarekin ibili behar da sare sozialetan eta beldurra ere eduki behar zaie.
- Beldurra ezagutzen ez denari izaten zaionez, errespetu handiarekin sare sozialek izan lezaketen arriskuaren aurrean arduraz jokatzeko eta elkar zaintzen irakatsi behar diegu ikasleei.
- Beldurra ezagutzen ez denari izaten zaio; beraz, sare sozialak ezagutzeko, beldurra uxatu eta edozein modutan erabili daitezke.

	Raul	Imanol
Ia sortu zirenetik erabiltzen ditu.	✓	✗
Oso onak dira informazioa azkar jasotzeko.	✓	✗
Ez zaizkio interesatzen.	✗	✓
Harremanetarako onak dira, baina ez dira modu bakarra.	✗	✓
Baliagarriak dira ikusten ez dituzun lagunekin harremana berreskuratzeko.	✓	✗
Intimitatea galtzen da.	✗	✓
Lanerako onak dira.	✓	✓
Nahi baino denbora gehiago galtzeko arriskuka dago.	✓	✗
Ez zaio gustatzen idazten duena betiko hor gelditzea.	✗	✓
Batez ere informatzeko eta lagunei jarraitzeko.	✓	✗

Transkripzioa

Sare sozialak, tresna bizkor eta indartsuak

Jolasgaraietan ikusten nituen makina txiki batekin, oso-oso kontzentratuak eta oso-oso aktiboak. Eta esan nuen hor zerbait badago interesantea. Jolaserako eta egiten ari ziren aktibitate horretarako hain interesanteak baldin baziren, lanerako ere oso interesgarriak izan zitezkeela pentsatu nuen. Hasi nintzen begiratzen, eta bai alajaina, baita aurkitu ere benetan oso interesantea direla eguneroko lanerako.

Ikasleak benetan bizi duten mundu oso bat osatzen dute. Mundu horretan ezagutza inportante kontsideratzen ditugunak: jakintzak, egiten jakiteak, izaten jakiteak... presente egon behar dute, bestela klasean bakarrik ezin dira horiek denak landu. Eta beste mundu hori geroz eta zabalago gertatzen ari da. Beraz, han jarri behar ditugu baita ere konzientzia, garapena, ezagutza, jakintza... eskura, presente. Horretarako erabiltzen ditut sare sozialak gelan.

Bi erabilpen mota daude sare sozialetan ere:

Bat, OMZ deitzen diot: Oso Maite Zaitut. Eta hori da jolasgaraietan eta ikusten dutena etengabe erabiltzen dutela. Emozionala.

Eta bestea da, erabilpen profesionala. Ikas komunitateen artean suertatzen dena. Nola? Nik zerbait interesantea aurkitzen badut ezagutza aldetik, besteen eskura ere jarri dezaket. Eta instantean, aurkitu orduko. Eta gero, nik nahi dudanean, besteek aurkitu dutena ikusi dezaket. Eta ikusi, "koñe interesantea da! Horrela, sare sozialak bilakatzen dira ikaragarritzko tresna bizkorra, indartsua.

Beldurra eduki behar den sare sozialen aurrean? Beldurra edukitzen zaio ezagutzen ez denari, errespetua handiena eduki behar zaio. Gozorako diren bezala mingotserako ere gertatu litezke. Orduan, horren aurrean ikasi behar dute, erakutsi behar diegu, arduraz jokatzeko, elkar zaintzen. Errespetua eduki behar zaio sare sozialari, handia, baina beldurra ez.

Bizitza pribatuko esparruan bakarra mugitzen badira, bakoitzak ahal duena bakarra egingo du. Baina gelako lana ere integratzen baldin badugu hor, denon artean ongi egiten dakiguna egin ahal izango du, arduraz jokatzeko ikasi, elkar zaintzen, errespetuak eta bideratzen, etab.

Nork esan du?

1. IRITZIA: RAUL PEREZ

ESATARIA:

Erabiltzen al dituzu sare sozialak? Noiztik? Zertarako?

RAUL PEREZ:

Bai batez ere Facebook eta Twitter erabiltzen ditut. Ba ia-ia sortu zirenetik erabiltzen ditut, baina egia da azken urteetan garrantzi gehiago ematen diedala. Ba lanerako, baita informatzeko eta horrekin batera nire lagunek egiten dutena jakiteko.

ESATARIA:

Baliagarriak iruditzen al zaizkizu?

RAUL PEREZ:

Bai, eskola-garaitik ikusten ez dituzun lagunak, adibidez, ba... berreskuratzeko baliagarriak dira sare sozialak.

ESATARIA:

Zein alde on dituzte sare sozialek?

RAUL PEREZ:

Guk egiten duguna zabaltzeko, oso interesgarriak dira. Eta baita ingurukoek egiten dutena jakiteko. Informazioa oso azkar jasotzen duzu, batez ere Twitterren.

ESATARIA:

Eta zein alde txar?

RAUL PEREZ:

Nire ustez denbora asko galdu dezakezu garrantzitsuak ez diren gauzetan.

2. IRITZIA: IMANOL FERNANDEZ

ESATARIA:

Erabiltzen al dituzu sare sozialak?

IMANOL FERNANDEZ:

Ba, ez ez ditut erabiltzen. Alde batetik, ez daukat interes handirik horrekin eta hola, eta gero aparte, bueno, uste dut hor idazten duzuna hor geratzen dela, eta han agian norbait erabil dezakeela zerbaitetarako. Bueno, jendeak esaten du "baina nori inporta zaio hor idazten duzuna?" Bai litekeena hori da, inork ez ikustea. Baina badakizu hori gerta daitekeela, ez? azkenean zerbait publikoa delako.

ESATARIA:

Baliagarriak iruditzen al zaizkizu harremanetarako?

IMANOL FERNANDEZ:

Bai, uste dut baietz. Baliagarriak izan daitezkeela. Baina beno, bakoitzak harremantzeko edo harremanak izateko modua dauka eta hori ez da nirea.

ESATARIA:

Zein alde on dituzte sare sozialek?

IMANOL FERNANDEZ:

Bai, agian, lanerako-edo baliagarri izan daiteke. Edo talde talde batzuk sortzeko eta komunikazioa ordenatuago egoteko agian baliagarri izan daiteke.

ESATARIA:

Eta alde txarra?

IMANOL FERNANDEZ:

Bai, ba hori, aipatu dudana, intimitate falta hori, eta hori.